



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2023/24 Denboraldia

6. ZK.DUN ZIRKULARRA

2023-2024 DENBORALDIKO BALOI OFIZIALA GAZTEEN NAZIONAL LIGA, EMAKUMEZKOEN EUSKAL LIGA, GAZTEEN EUSKAL LIGA, KADETEEN EUSKAL LIGA ETA EUSKAL KOPAK


Zirkular honen bidez jakinarazten da nahitaez erabili behar dela baloi-eredu jakin bat lehiaketa horietako partidetan. Neurketak baldintza tekniko desberdinekin egin dira, etxeko talde bakoitzak egokitzen duen baloi motaren arabera. Lehiaketaren garapenean erabilitako elementu teknikoak bateratuz hobetu nahi da, kasu honetan talde guztiek baloi-eredu bera erabiliz.

Egoera hori errazteko asmoz, EFF-FVFK erabaki zuen egokia zela baloi uniformearen eredu bat ezartzea, edozein kirol eta esparrutako ia federazio-lehiaketa guztietan dagoen bezala.

EFF-FVFK ADIDAS markako TIRO COMPETITION izeneko eredu ofizialeko 10 baloi doan emango dizkie lehiaketa hauetan parte hartzen duen talde bakoitzari:

- Gazteen Nazional Maila.
- Emakumeen Euskal Liga.
- Gazteen Euskal Liga.
- Kadeteen Euskal Liga.

EFF-FVF, hornitzailearekin egindako negoziazioan, TIRO COMPETITION baloiaren prezioa (23,85 €+ BEZ = 28,86 €) dela adostu da, Federazioari eta baloi gehiago erosi nahi dituzten klub guztiei aplikatzen zaien prezioa da, bai entrenamenduetarako, bai partidetarako, eta, behar izanez gero, galeragatik edo narriaduragatik. Baloiak klub bakoitzak erabakitzen duen hornitzailean eskuratu ahal izango dira, baina EFF-FVFKtik baloiak errazago erosteko eta Futbol Emotion-ekin adostutako prezioan on-line erosteko plataforma bat eskaintzen da, baita baloiak adierazitako helbidera bidaltzeko ere.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Plataformari eta online salmentari buruzko informazioa lehiaketa horietako klubei bidaliko zaie.

Edozein zalantza edo argibidetarako info@euskadifutbol.eus

Bilbon, 2022ko uztailak 11an



KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General

